

## Asteburu multimusikala

Eguraldiak ezin izan du festa zapuztu eta primerako giroa izan da



Patxi Fadrique  
Gipuzkoako  
txapelburua

Gurpil Aulkiko Gomazko Paletako Gipuzkoako Txapelketan, bigarren postua eskuratu zuen herriko pilotariak larunbat goizean Loiolako pilotalekuan jokatutako finalean. Ligaxka formatuan egin zuten finala eta partidu bat galdu eta bestea irabazita, bigarren postua eskuratu zuen Urko Peña bikotekidearekin batera. **6. orrialdea**

Haizea zakartu egin zen astebukaeran. Euriak melamela eginda utzi zuen Multimuskaleko karpa... Eguraldia tristea izan zen oso, baina musikak blaitu eta alaitu zituen bene-benetan Lasarte-Oriara hurbildutako lagunen belarriak.

Ostiral eta larunbateko kontzertuen bilgune eta igan-dean Euskal Jaiaren kokaleku izan zen Okendo plazan kokatuta zegoen gune nagusia. Herriko tabernak ere, Euskal Herri osotik zein kanpotik etorritako taldeen kontzertuen gune izan ziren larunbatean.

Antolatzaileak gustura mintzatu dira Multimuskalak izan duen harrerarekin, jendearen erantzuna ona izan dela adierazi dute. Orain, buru-belarri jarraituko dute maiatzean egingo den Multimuskala 10 edizio indartsua prestatu eta antolatzen. •



Euskal Jaiak harrera beroa izan dute aurtegoan ere eta jende askok parte-hartu du. Irudian, trikitilariak kaleak girotzen.

## Gabonetako afari luzea

Lan eta Lan antzerki taldeak ikuskizun polita eskaini zuen ostiralean Helduen Hezkuntza Iraunkorren ikasle lasarteoriatar ohiak aktoretzat hartuta. Hiru Pulitzer sari irabazi zituen XX. mendeko idazle eta antzerkigile Thornton Wilder estatubatuarren "La larga cena de Navidad" obra antzeztu zuten herritarren aurrean eta primeran aritu ziren Ana Miranda zuzendariaren esanetara. Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian jende asko bildu zen eta ikusleek giro onean igaro zuten arratsa. •



Amantel zuridun mahai baten inguruan bildu dira protagonistak eta elkarriketa mamitsuak izan dituzte euren artean.

ALBISTEA /2

Gabonetan presoan aldeko hainbat ekitaldi egingo dira

ALBISTEA /2

Bilduko zinegotziek presoan aldeko baraualdiarekin bat egin dute

ALBISTEA /6

Udalak 6.000 eurora jaitsiko du Gabonetako argien gastua



Pablo Mutiozabal, 2. Lasarte-Oria.  
Tel.: 943 366228. ekain.lib@gmail.com

Aukerarik hoberena liburu eta papertegian zure etxetik gertu  
La mejor selección de libros y papelería cerca de tu casa

Zorionak

ekar  
zerbitzuak  
servicios

# Euskal preso politikoak gogoan

PLT-k Olerki irakurketa eta Joseba Tapiaren kontzertua antolatu ditu

Presoen Lagunak Taldeak joan den abenduan olerki emanaldia prestatu zutenetik joan da urtebete. Orduan ekimenak jarraitzen izango zuela iragarri zuten eta honela izan da, abenduaren 30ean, bigarren Olerki irakurketa egingo baita. Baina ez da hau Eguberrietan zehar egingo duten ekintza bakarra izango, Joseba Tapiaren kontzertua izango da, urtarrilaren 6an.

Presoen Lagun taldeak herriko hainbat eragileen babesarekin Eguberrietan herriko preso politikoek egingo dituzten ekimenen berri eman zuten, larunbata eguerdian.

Taldeak aditzera eman zenez, "sakabanatuta dauden preso herritarrek bisitatzen, onartuta gauzkatzen espetxeetako bisita-zerrenda mugatuetan ibili gara bixitan, idazten, ingurukoaren berri azaltzen, partekatzen, euren senideekin harremanetan, honela joan zaigu urte hau ere".

"Sakabanaketak eta neurri bereziak bere horretan dirau-



Presoen Lagunen taldea sentsibilitate anitza duen taldea da eta horregatik, auzkezpenen hainbat arloko herritarrek bildu ziren.

te. PLTko kideok euskal preso politikoek egoera honi amaiera emango dion neurriak jarri behar direla berehalak martxan uste dugu," adierazi zuten.

## Olerki irakurketa

Baina ez dute etsi eta horregatik, presoen ahotsa herrira ekarriko dute. Horretarako, aurten ere, "Harresi guztien gainetik, sarraila guztien azpitik" emanaldia prestatu dute abenduaren 30, ostiralean 19:00etan Manuel Lekuona kultur-etxean.

Emanaldian Ina Orotegik, Kepa Rezabal Txurdik, Ibon Fernandez Iradiak, Aitzol Irigoienek eta lurgi bilbotarrak idatzi dute. Testuak, oler-

kiak... "haiek ere badutelako zer esanik".

Taldeak azaldu zenez, "aurten ere erraza izan da eurei ahotsa jartzeko lagunak biltzea".

## Tapiaren kontzertua

Era berean, aurten erdiguneko abenduaren 26tik urtarrilaren 7ra bitartean atek zabalik izango dituen elkargune bat egongo da, Okendo Plazan.

Honetan presoen eskulan erakusketa izango da bi asteetan zehar. Presoen Lagunek taldeak adierazi zenez, "espetxe askotan debekatua badute ere, zenbaitek izan du eskulanak egiteko aukerarik, horiekin eskulan erakusketa

prestatu dugu aurten".

Honetaz gain, ekimen ugari egingo da lokalean, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

"Herriko esparru ugarian ezagun diren herritarrek atxiki zaizkigu" eta azpimarragarria da, Joseba Tapia musikariak "Eta Tira eta tunba" diskako doinuak joko dituela Manuel Lekuona kultur-etxean, urtarrilaren 6an arratsaldeko 19:30ean. Horregatik, taldeak eskerrak eman zizkion auzkezpenen.

Era berean, hau guztia antolatzeko dirua behar dela eta, lokalean 5 eta 10 eurotako bonolaguntzak egongo direla jakin arazi zuten. •

## EGITARUA

**Abenduaren 26 astelehena**

**18:00etan**, Bea Egizabal ipuin kontalaria, lokalean.

**Abenduaren 27 asteartea**

**18:30an**, Zigor Lanpre DJ-ak saio didaktikoa eta musika jartzea, lokalean.

**Abenduaren 28 asteazkena**

**18:00etan**, Porrotx, lokalean.

**Abenduaren 29 osteguna**

**19:00etan**, Berto saioa, lokalean.

**Abenduaren 30 ostirala**

**19:00etan**, Olerki emanaldia, Kultur-Etxean. Ondoren, pintxo-luntxa, lokalean.

**Abenduaren 31 larunbata**

**19:00etan**, Euskal Presoak Etxera manifestazioa, Okendotik.

**Urtarrilaren 2 astelehena**

**19:00etan**, Ataramiñe kultur

elkartea eta argitaletxearen aurtenko argitalpenen aurkezpena, lokalean

**Urtarrilaren 3 asteartea:**

**19:00etan**, Poesia emanaldia, Ramon Agirrekin, besteak beste, lokalean.

**Urtarrilaren 4 asteazkena**

**19:00etan**, Torturaren Aurkako Taldearen bideoaren aurkezpena, lokalean.

**Urtarrilaren 5 osteguna**

**18:00etan**, presoen eskulan erakusketa, lokalean.

**Urtarrilaren 6 ostirala**

**19:30etan**, Joseba Tapiaren kontzertua, "Eta tira eta tunba", Kultur-Etxeko aretoan.

**Urtarrilaren 7 larunbata**

**17:30etan**, Manifestazioa Bilbon, Euskal preso politikoek defentsan. Kolosala izango da!



## Bildu Euskal Presoen eskubideen alde

Ostiralean, Bilduko Udaltaldeko kideek baraualdia egin zuten. Era honetara, asteen zehar Donostiako kanpusean egin zuten euskal presoen eskubideen aldeko baraualdiarekin bat egin zuten. Izan ere, egun horretan Donostian alderdi politiko eta erakunde publikoetako ordezkarien txanda izan zen.

Baraualdiaz gain, udaletxe

aurrera atera ziren eguerdian eta ordu erdiz "Egin dezagun bidea. Euskal presoak euskal herrira" leloa zuen pankartekin elkarretaratzeko egin zuten.

Era berean, urtarrilaren 7an Bilbon euskal presoen eskubideen alde egingo den manifestazioarekin bat egiten dute eta herritarrei honetara joateko deialdia egiten dute. •

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintzarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Gabon argietan aurreztu egingo du Udalak

■ Kaleetan argi gutxiago jarrita 6.000 eurora jaitsiko da gastua ■ Soilik hiru tokitan ipiniko dira  
 ■ Egitarauan dira Haur Parkea, Santo Tomas, Olentzerori ongi-etorria eta Errege Magoen desfilea

Gabonetako argi gutxiago izango da herriko kaleetan. Udal gobernu berriak aspaldi azaldu zuen herriak egun bizi duen egoera ekonomiko zaila eta dirua aurrezten segitzen du. Soilik herriko hiru puntutan jarriko ditu gabon argiak eta 6.000 euroko gastua egingo du, Ana Isabel Prieto Zerbitzuetako arduradunak azaldu digunez, aurreko urtetik onartuta zegoen diru-saila erabiliz. Garai bateko 80.000 euroak urrun geratzen dira, beraz. Bestela Gabonetako egitaraua aurreko urtekoen antzekoa da.

Udalak gabonetako argi eta apaingarriak herriko hiru tokitan soilik jartzea erabaki du ez zeukalako horretara bideratzeko dirurik eta aurrez horretarako onartuta zeuden 6.000 euro erabili ditu, Ana Isabel Prieto Plataformako zinegotziak jakinarazi digunez, aurreko urteetan baino askoz gutxiago.

Udaletxearen fatxadan, Brigidatan jarri ohi den jaiotzaren baitan eta zaharren egoitzan jarriko dira apaingarriak, eta kontsumoa ere neurituko da: Santo Tomas egunean piztuko dira eta Errege eguna bitartean izango dira marxan. Ana Isabel Prietoren hitzetan, Lasarte-Oriako udalak 80.000 euro inguru bideratu ohi zuen Gabonetako argien alokairurako, "kontsumoa eta bestelakoak gastuak kontutan izan gabe, dirutza gastatzen zen". Iaz udalak jaitsi egin zuen gastua, baina hala ere 24.000 euro bideratu ziren argiak jartzeko eta aurtun, "zerbait jartzeagatik", 6.000 euro.

"Neurria ziurrenik ez zaio herritar askori gustatuko. Jendeak atsegin ditu Gabonetako apaingarriak jai giroa irudikatzen dutelako baina ezinezkoa da gaur egun gehiago gastatzea" azpimarratu du Prietok.

Zenbait herritan Udalak merkatariei laguntza eskatu eta erdi bana ordaindu dute Gabonetako argien gastua baina "gure herriko komertzioei ekarpen hori eskatzea gehiegizkoa irudituz zaigu jakin badakigulako eurek ere krisia nabaritzen ari direla" dio Prietok zinegotziak. Udalak eskura duen dirua herritarrentzat oinarritzekoak diren zerbitzuetara bideratu duela azaldu du eta espero du herritarrek erabaki hau ulertu eta babestuko dutela.

Bestela, aurreko urteetako Gabonetako egitarauari eutsi dio Udalak. Gabonetako Haur Parkea, Santo Tomas eguna, Olentzerori ongi eto-

ria eta Errege Magoen kabalkada antolatuta ditu Gazteria, Festak eta Kirol sailak.

## Eguberrietako haur parkea

EHP edo Eguberrietako Haur Parkea, abenduaren 22tik 31ra egongo da zabalik, biak barne, Michelingo frontoian, ibaiaren aldetik sartuta, goizeko 11.00-14.00 eta arratsaldeko 17.00-20.00 bitartean. Itxita egongo da abenduaren 24an arratsaldez, 25ean egun osoz eta 31 arratsaldez. Haurrek sarrera doan izango dute eta helduek euro bat ordainduko dute.

Egunero haurrentzako joko, ikuskizun eta jolasak antolatuko dira, ludiko zein didaktikoak, adinaren arabera gune ezberdinetan banatuta: Txikien gunean (0-6 urte), puzgarriak, ludoteka, irakurketa txokoa eta hainbat tailer egongo dira; Haurren gunean (7-12 urte) puzgarriak eta tailerrak; Familiaren gune zabala ere prestatuko da, besteak beste. ping pong, futbolin, billar, golf, zirku eskola, Wii eta jolas erraldoekin. Txokolate jana,



Gabon Jardunaldien barruan dekorazioa eta otorduak jorratu dira Villa Mirentxun, ostegun eta ostirlean hurrenez hurren.

urte amaierako jaiak, "virtual dancing"-a, eta Xistera magia ikuskizuna, Mugi Hadi haur dantzaldia eta Mugarik Gabeko Mundua antzezlanak ere eskainiko dira.

## Santo Tomas Eguna

Ttakun kultur elkarteak antolatuta, abenduaren 21ean Santo Tomas Eguna emango dio hasiera gabonetako egitarauari, eta baserriarrez janzteko deia luzatu dute antolatzaileek. Okendo Plazan, arratsaldeko 17.00etatik 20.30ak arte, giro bikaina izango da: batetik talo eta txistorra, gaztainak eta sagardoa dastatzeko aukera eta bestetik hainbat ikuskizun, Amalur taldeko

trikitilariak, bertsolariak, Kukuka antzerki eta dantza eskola, Erketz dantza taldearen eskutik dantza ikastaroa eta erromeria, baserriarren produktua, txerria ikusgai, haurrek talo egingen ikasteko tailerra,...

## Olentzeroren etorrera

Ttakunen eskutik abenduaren 24an Olentzerori ongi etorria emango zaio Okendon. Arratsaldeko 17.00etan hasiko da ekitaldia Amarauneko pampinen eta Porrotx pailazoaren saioarekin, 17.45etik aurrera, Olentzerori harrera egingo zaio Amalurriko trikitilariekin batera eta 18.30etatik 20:30etara bitartean Olentzerok muxuak banatu eta eskutitzak jasoko ditu.

Amaraun ludotekak, Olentzeroren etorrera argitzeko kriseilu berezi batzuek egiteko gonbidapena luzatu du. Gainera abenduaren 22an 17:30etan txutxe tartak egingo dituzte Ludotekan. Parte hartu nahi dutenek, edota kriseiluak egiteko asmoa dutenek, [www.ttakun.com](http://www.ttakun.com) webean, [aisia@ttakun.com](mailto:aisia@ttakun.com) helbidean edota 943 37 14 48 telefono zenbakian dute informazio gehiago.

## Erregeen kabalgata

Megaba elkarteak antolatuta urtarillaren 5ean Errege Magoak herriko kaleetan ibiliko dira. Eguerdian, Erregeei gutuna bidaltzeko modua egongo da Okendon Erregeak Atsobarko Zahar-Etxean bisitan eta opariak banatzen ari diren bitartean. Gero arratsaldeko 18.00etatik aurrera, herri osoa zeharkatuko dute erregeek Okendon amaitzeko.

Gabonetako egitarau zabalaren barruan badira beste ekitaldi batzuek: ostegunean 22an Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua 19:00etan Kultur Etxean. Eskolan irakasten diren musika tresna guztiekin ipuin musikatua prestatu dute aurtun, ikasle eta irakasleek. Bestalde, ostirlean 16:00etan hasita Skate festa (roller, musika, beat box,...) izango da Skate Parkean, 19:30etan Gospel kontzertua Brigidatan, 29an goizeko 10:00etan ur festa polikiroldegian eta 30ean 16:00etan gazteentzako denborapasak Okendon: Twister, futbito, herri kirolak, txapak eta tailerrak besteak beste. •



**Albokaren kontzertua Brigidatan.-** Herriko Alboka abesbatzak gabonetako kontzertua eskaini zuen atzo Ama Brigidatarren komentuan. 12.30etan hasi zen musika emanaldia eta herritar asko izan zen bertan musikaz gozatzen. Alboka txikiokoe ere parte hartu zuten emanaldian eta Eguberrietako kanta herriok abestu zituzten. •



Trumoi ondoko libaderra izan zen esperimentuzko beste bat, ruidan, The Trifisks.



40 D Fiebre taldearen kontzertua izan zen agian, Multimuskala Ok-i uzatiko momenturik bero eta hunkigarria.



Itzargeri gustatu zitzaion jendeari 'La Kinky Beat' taldearen emanaldia, Ojaren mahai luugarria zen.



Euskal jaien antolatzaile kalejirak herriko txoko ezberdinetan bitatu zituen.



Isorrio, anekdota, bapen, emasa... Denetik bizi izan da azteburuan Okendoko Karpan.

## Multimuskala Ok eta euskal jaiak ez dute hutsik egin

**O**stiralean eman zitzaion hasiera herriko musika festa handienari. Aurtengoa, berezia, O Multimuskala, baina ez horregatik aurreko beste urte batzuetan baino apalagoa, ezta gutxiago ere.

Jende ugari animatu zen ostiralean Okendoko Karpara, bai aurkezpen ekitaldira eta baita gaueko kontzertuetara ere. Lehenik, O! Salimos txantxearek punk doinuaz blatu zituzten lasarteoiatar zein kanpotik etorritakoekin belarrik.

Ostean, 40 de Fiebre taldea taularaztearekin batera iritsi zen gaueko momenturik hunkigarriena, Juan Mari Cerezo taldekidea zenaren omenez, kontzertu beroa eskaini balizuen bi urte zuzenean jo gabe zeramatzen Lasarte-Oriako taldeak.

Gaueko kalitate ukitua beriz, "La Kinky Beat" talde kataluniarrek jarri zuten, dantzan jarri zuten karpia osoa gaueko ordu bukitzera arte.

### Larumbata, egun nagusia

Larumbatari dagokionez, Senegaletik etorritako Famili Mbolo taldea eta Iban Nikolai djeridoo jotzailea izan ziren gaueko protagonistak ezaliko nagusiak. Kalea girozen aritu ziren eguedi aldera arte.

Bazkarian, herriar asko izan ziren Juntxo, Lasa eta euren kuadrilak prestatutako menua dastatzen. Lehen aldiz ikusi genuen Lasarte-Oriako alkatea Multimuskaleko bazkarian, Pablo Barriok ere ez zuen hutsik egin.

Horretaz gain, Euskal Herri osotik etorritako grafiti egileak ere izan ziren Lasarte-Orian, eta Institutura doan zubian euren artean egin zituzten.

Arratsaldean iritsi zen Multimuskalaren ezaugarri nagusienetako, tabernetako kontzertuak zuden prestatuak. Hainbat eta hainbat talde aritu ziren jo eta ke herriko sei tabernetan. Tartean ziren Makulu Ken, Oreindik, Keep Diggins eta

The Trifisks talde lasarteoiatarak.

Gauean, ostera ere karpako gune nagusian sekulako festa antolatuta zuten Buffalo, Egin Patchanga Band, Anai-Arreak eta Adabegi taldeak. Estilo guztietako doinuak entzun ahal izan ziren eta goizaldieko 5:00ak arte luzatu zen jata.

### Euskal Jaiak

Igandean beriz, txistulariek kaleak musikaz girotu zituzten goizean goizetik, herritarrek esnatu asmoz. Ondoren, elkarteen kalejira abiatu zen herriko kaleetan barena eta eguerdi aldera ireki zen Euskal Jaiaren gunea Okendoko karpian.

Bertan bertsoariak, abesbatzak, herri kirolak... Deneratik izan zen.

Herri bazkarian lagun asko bildu ziren eta bazkalostean egindako kantu saloak eta eromeriak atebukeareri amaiera borobila eman zioten.



Oreindik taldeak mahi abaldu kontzertua eskaini zuen Mauren tabernetan.



Irudi bizi asko utzi ditu Multimuskaleko beste beste Euskal Herri osotik etorritako grafitoaren topalesta...



... Senegaldik gurera iritsitako musikariak edota Australako instrumentu aborigenak



Jende asko bildu zen Euskal Jaien herri bazkarian. Ondoren izan ziren eromeria eta kantuak.



Dantzak ere izan zuten presentzia Multimuskaleko karpian Euskal Jaien barnean.



## MATE

ESTETIKAKO ARETOA

...foto depilazioa amai pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

**Uistin Kalea x/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria**



# ANAIK

## JANTZI-DENDA

**ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA!**

**Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA**  
**Tel.: 943 362586**





Partidu politak ikusteko aukera izan zuten Loiolako pilotalekura hurbildu zirenek.



Mikel Izagirre Gipuzkoako Kirol Egokituko lehendakariak eta Iñaki Peluaga Lehiaketa arduradunak eman zituzten sariak.

Patxi Fadrique pozarren Loiolako pilotalekuan, garaikurra eskuetan duela.

# Patxi Fadrique, txapeldunorde, paletan

- Gurgil aurkian dabilzan kirolarientzat lehen aldiz antolatu dute Gipuzkoako txapelketa
- Finala azken orduan Loidibarrengo pilotalekutik Loiolakora lekualdatu behar izan zuten

Patxi Fadrique herriko pilotariak lan txukuna egin du lehen aldiz antolatu den Gurgil Aulkiko Gomazko Paletako Gipuzkoako Txapelketan, bigarren postua eskuratu baitzuen larunbat goizean Loiolako pilotalekuan jokatu zen finalean. Norgehiagokak Loidi-Barrengo pilotalekuan jokatu behar bazituzten ere, azken orduan Donostiara eraman behar izan zituzten Lasarte-Oriako Udak Kirol teknikariek izan zen konponezin bat tarteko.

Jon ALTUNA EGITEGI

Urria amaieran ekin zioten txapelketari aurtengoan lehenengo parte hartu dute sei pilotariek. Gipuzkoako hainbat herri bisitatu ditu txapelketak, hala nola, Usurbil, Zegama eta Antzuolan jokaturako partidekin ligaxka antzeko bat prestatu zuten.

Hiru bikote osatu zituzten horrela, jardunaldi bakoitzean ezberdina izango zena eta horregatik, herri bakoitzean jokaturako partiduek puntuak ematen bazituzten ere, puntuak ez ziren bikotekidearentzat izango, norberarentzat baizik.

Horren helburu nagusia, finalari begira, ahalik eta bikote parekatuenak osatzea zen. "Onenek" "txarrenekin" bikotean joka zezaten.

Patxi Fadrique herritarrak atzelari postuan jokatzen dutenen artean ligaxkan azken postua lortu zuenez, Urko Peña aurrelari onena izan du bikotekide finalean.

## Finalako partiduek

Lehen partidua zen garrantzitsuena Fadrique eta Peñarentzat, Usurbilgo Beñat Lizaso eta Andoni Aizpeolea bikote usurbildarra garaitzea ia beharrezko baitzuten txapela janzteko itxaropenik mantendu nahi bazuten. Eta halaxe

izan zen, 25 eta 16ko emaitzarekin irabazi zuen partidua Fadrique-Peña bikoteak.

Hala ere, bigarren partidua ezin izan dute irabazi, Edurne Unamuno eta Edorta de Anta bikote gogorrek garaitu egin baititu 25-9ko emaitzarekin.

Horrenbestez, partida bat galduta eta bestea irabazita, bigarren postuarekin geratu behar izan du Patxi Fadrique pilotari herritarrak.

## Sari banaketa

Behin txapelketa amaituta, sari banaketa egin zuten frontoian bertan. Bertan izan ziren Mikel Izagirre, Gipuzkoako Kirol Egokituko lehendakaria eta Iñaki Peluaga Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko lehiaketa arduraduna. Finalak izan zuen garrantziaren erakusgarri izan zen hori.

Lehen postua eskuratu

zuen bikotea Edurne Unamuno eta Edorta de Anta osatutakoa izan zen, nagusitasunez irabazi zituzten finaleko bi partiduek.

## Lekualdaketa

Finala berez Loidibarrengo pilotalekuan jokatu behar bazen ere, azken unean eraman zuten Donostiara, Lasarte-Oriako kirol zerbitzuarekin konponezin bat tarteko. •

## Arteaga-Aranguren herriko bikotea Gipuzkoako txapeldunorde izan da

Herriko kadete mailako pilotariek ezin izan dute Gipuzkoako txapela lortu. Ostiralean jokatu zuten finala Ikaztegiatan, Zazpi Iturri pilota elkarteko Altuna eta Murua amezketarren aurka.

22 eta 9 amaitu zen partidua, eta Jose Felix Solano entrenatzaileak azaldu duenez, jaun eta jabe izan dira

amezketarrak partidua hasi eta buka. "Erabateko nagusitasuna erakutsi dute, batez ere Altuna aurrelariak, min asko egin digu sake eta erremateen bidez eta guk berriz, ezin izan dugu geure mailarik onena eman".

Pilotalekuari dagokionez, Lasarte-Oriako Loidi-Barren pilotalekuarekiko antzekota-

sun handia zuela adierazi du Solanok, hemengoak bezala, zementuzkoa baitu zorua ikaztegiakoa.

Bestalde, mutilak txapela jantzi ezinaz pixka bat penatuta gelditu diren arren, lortutako bigarren postuak urte hasieran martxan jarriko den Euskal Herriko Txapelketarako txartela eman die. •

## Eskutitza

### Gipuzkoa Zero Zaborren poza

GZZak bere poza azaldu nahi du hondakinen gaiarekin loturik berriki izandako hainbat gertaeren inguruan. Txalagarria da oso, 38 udaletako alkate eta San Marko mankomunitateko lehendakariak Zero Zabor bidean jartzeko hartutako konprometua. Horekin loturik, GZZk ordezkaria daukan GHK-ren administrazio kontseiluak, errauste plantaren eraikuntza proiektua sei hilabetez eteteko eta gaia aztertzeke egindako proposamena ere zoriontzeko iruditzen zaigu. Lehendik ere hondakinen arazoari errauste bezalako sasi itenbide toxikoa ematea zalantzasokoa bazen, orain are eta garbiago dago horrek suposatuko lukeen zentzuegaberia.

Epe hau, hausnartu, informatu eta erabakiak hartzeko aldarrikatu izan dugun moratoria bezala ulertzen dugu. Herritarren ongizatea lehendetsi, eta ingurumen osasungarri batean bizitzeko eskubidea bermatuko duten erabakiak erdiesteko garaia da. Datuak eta informazioa dira Zero Zabor norabidea babesten dugun argudiorik sendoen, eta beraz, zentzuzko bidea nagusituko denaren ziurtasun osoa daukagu.

Hondakinen gainen denok gara arazoaren parte eta denok izan behar dugu itenbidearen parte. Beraz, gaia despolitizatu eta adostasuna bilatzeko probestu beharko guke denbora hau.

Astelehenetik, abenduaren 12tik, hona asko da aurreratutakoa. Gogoratu besterik ez dago urriaren 13an jarduneari zegoen GHK-ko administra-

zio kontseiluak egindako ezohiko bilera gatazkatsua hura. Dena erabakita utzi nahi zuten, berraztertzeke aukerarik eman gabe. Azken erabakiek zulo ilun horretatik aterata eta argia ikusteko aukerarik eman digute. Gaur esan dezakegu, Zero Zabor proiektua Gipuzkoan gauzatea gertuago dagoela helburua lortzetik, ez lortzetik baino. Egoera itxaropentsu honetan, lan asko egin beharko dugula jakitun gara, baina gustoko lekuan aldarrikatu ez.

Azken egunotako erabaki hauekin aukera bat ireki da. Aukerak baliatu ala alferrik galtzen utzi daitezke. Momenturik zailenetan eta etsigarrietan gizarte mugimenduek aurrera egiteko gaitasuna izan dugulako heldu gara askok lortu ezinezko amets bezala ikusten zuten egoera honetara. Gaur, hedabideen aurrean azaltzeko, martxoaren 20an milaka herritarrek bete, eta denok batera, "Hartu nahi dut arnas" dantza zuten erreboten plaza aukeratu dugu. Ahalegina eta uztza, lana eta saria, batu nahi izan ditugu horrela. Enpresa eta lobby handien interesen arabera egindako makroproiektuak geratu, eta herritarren interesak ardatz izango dituztenak martxan jarri daitezkeela erakusten digu lortutakoak. Berriz ere, ezina ekin ezagaitzen dela ikusi ahal izan dugu.

Asteleheneko erabakiak guztion onurarako izango dira eta abiatzen den ibilbide berri honetan bidelagun izango zaituzteguna ziur gaude. Zorionak Gipuzkoar guztioi!

Gipuzkoa Zero Zabor



## Santo Tomas eguneko azoka

Lasarte-Oria ere TALOAK, GAZTAINAK, SAGARDOA, MUSIKA, DANTZA, BERTSOLARIK, BASERRITARREN PRODUKTUAK ETA TXERRIA izango dira TTAKUN KULTUR ELKARTEAK Okendo plazan antolatuko duen SANTO TOMAS EGUNeko AZOKAN.

ASTEAZKENA 21  
17:00ETATIK AURRERA  
OKENDO PLAZAN

## Egunero Erakusketa

ESTUDIO DEL PINTOR akademia-ko ikasleen erakusketa. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, egun osoa.



tailerrak, ludoteka, jolas erraldoiak, etab. izango dira. MICHELIN KIROL GUNeko PILOTALEKUAN, **11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.**

### Kontzertua

UDAL MUSIKA eskolako ikasleek EGUBERRITAKO KONTZERTUA eskainiko dute. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:00etan.**

### Argia eguna

"BIDAIA INTIMOAK" lau lagunek euskara ikasteko erabakiaz eta prozesuaz egindako dokumentala eskainiko da Argia egunean. Dokumentala AEK eta Korrika 16rentzat egin zen. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **21:30ean.**

## Ostirala, 23

### Gabonetako Haur parkea

Haurrentzako Gabonetako parkean ederki gozatzeko aukera izango dute etxeko txikiak, puzgarriak, tailerrak, ludoteka, jolas erraldoiak, bideo jokoak, mahai tenisa eta futbolinekin. MICHELIN KIROL GUNeko PILOTALEKUAN, **11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.**

### Kontzertua

"THE UPPER ROOM" taldearen Gospel emanaldia, Danok Kidek antolatzen dituen VII. MUSIKA TOPAKETEN barruan. AMA BRIGITARREN KOMENTUAN, **19:30ean.**

## Osteguna, 22

Gabonetako Haur parkea Haurrentzako Gabonetako parkea irekiko da, puzgarriak,

## Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00  
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00

Abenduaren 24a eta 31ean, larunbatak itxia egongo da



Manuel Lekuona kulturtegia • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

## Oharrak

**Maria Auxiliadoraren meza** Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren ohorezko meza ospatuko da abenduaren 23a, ostirala, arratsaldeko 17:00etan.

**Gasolina merkeago Aterpean** Oriako Allerru gasolindegian depositoa bete eta Aterpearen txartelarekin ordaintzen duten herritarrek %2ko beherapena izango dutela gogoratu du merkatarien elkarteak.

Aterpea Merkataritza elkarteak martxan jarritako kanpaina da eta txartelaren erabilera sustatzea du helburu nagusia.

### Zabaletako Olentzeroa prestatzeko saioak

Zabaletako auzokideak, OlenTZerorekin batera, abestera aterako dira abenduaren 24ean, goizean 10:00etan. Antonio plazatik abiatu eta auzoan, zein baserrietan gabon kantak abestuko dituzte.

Ahotsak prestatzeko, abenduaren 20an, asteartea eta abenduaren 23an, ostirala, 19:30etan auzoko plazan bilerak egingo dute.

### Gabonetako saskiak Aterpearen eskutik

Lasarte-Oriako Aterpea Merkatarien elkarteak Gabonetako kanpaina jarri du martxan, urtarrilaren 5a arte.

Hamasei komertzio haien produktuetako sortak zozketatuko dituzte. Honela, denda

hauetan erosketak eginez, zozketentzako txartelak eskuratuko ditu herritarrak.

### Ostadar SKT-ko loteria eta bazkide kanpaina

Ostadar Saiarre Kirol Taldeak jakin arazten du, aurten ere gabonetako loteria duela salgai, 92.646 zenbakia, hain zuzen ere. Erosi nahi duenak bulegoan eskuragarri du.

Bestalde, kirol taldeak 2012. urteko Bazkide Kanpaina hasi du.

Elkarteko kideek herritarrak animatu nahi dituzte Ostadarreko egoitzara hurbildu eta bazkide egitera. Abenduaren 23ra arte luzatuko da kanpaina hau.

Era berean, bazkide direnei laguntzen jarraitzeko deia egiten diete, "kirol egitasmok" hau gauzatu ahal izateko

zuen diru-laguntza ezinbestekoa baita".

### Ostadarreko mendiko sailaren bilera

Ostadar SKT taldeko mendiko atalean federatu nahi duenak abenduaren 21a baino lehenago bulegotik pasa behar duela jakin arazi du.

Era berean, mendiko sailari bultzada bat eman nahian, urtarrilaren 12an, arratsaldeko 18:30ean bilerak bat egingo dute mendiko ataleko talde lana osatzeko. Beraz, saileko kide diren herritarrei bilerara joateko deialdia egiten diete.

### Ostadarreko bulegoaren itxita Gabonetan

Ostadar Saiarre Kirol Taldeak jakin arazten du, bulegoaren abenduaren 26tik urtarrilaren 8ra arte itxita egongo dela.

### Landaberriko gurasoen bilera jangelari buruz

Asteartean, abenduak 20, 18:00etan Garaikoetxea eraikinetako Soinketa Aretoa informazio-bilerak berezia antolatuko du Landaberri ikastolako Guraso Elkarteak eta Zuzendaritzak.

Landaberriko zuzendaritzak eta Guraso Elkarteak jakinarazi dutenez ez dago gaurko erabakita datorren ikasturtean eskola-jangelaren kudeaketa-sistema zein izango den eta "lanean jarraitzen dute ikastetxeak merezi duen konponbide duina lortze aldera".

Bileran parte hartzearen garrantzia azpimarratu eta guraso guztiak gonbidatu dituzte, HH, LH eta DBHkoak, helburu bikoitza duen bilera: gatazkaren egoreri buruzko informazioa ematea eta gurasoen iritzirik ezagutzea.

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

Aroa Lasa Abeslaria

# “Palestinan igarotako hamar egunek marka sakona utzi dute niregan”

Biladi Hadi Brigadak Durangoko Azokan plazaratu duen liburu eta diskoan parte hartu du

**"BILADI HADI hamaika begirada Palestinari, Euskal Herriatik" izeneko liburua eta diskoa Biladi Hadi elkartasun brigadak Euskal Herriko hainbat sektoretako pertsonekin batera garatutako proiektua izan da. Brigada honen parte izan zen Aroa Lasa eta liburuaren koordinazio lanetan jardun da hilabete luzeetan. Palestinan bizitako esperientziak eta Durangoko Azokan aurkeztutako liburuaz mintzatu gara Arramazka taldeko abeslariarekin.**

Maidar AZURMENDI

**P**alestinan bizitakoa lurrikara moduko bat izan da Aroa Lasaren bizitzan eta kaleratutako liburuak da horren adibide.

## Zergatik Biladi Hadi Brigadan parte hartzea? Zenbat denborarako egon zinen Palestinan?

2010ko udan hasi zen proiektua. Palestinara elkartasun brigada kultural bat egitea pentsatu genuen. Duela hiru edo lau urte Katalunian burutu zuten esperientzia eta guri ere interesgarria iruditu zitzaigun Euskal Herriatik brigada kultural bat martxan jartzea. Bi txanda izan ziren, lehenengo taldeak uztailan egin zuen egonaldia Palestinan eta nire kasuan, bigarren txandan irailan.

Kultur arloko jende asko egon ginen, musikariak, zinemagileak, idazleak baita udal ordezkari, pailazo, kazetariak eta ikasleak ere. Palestinan hamar egun egin genituen, bi brigaden artean 40 lagun inguru izan ginen. Ez ginen bi taldeak batera joan herrialdean sartzeko jartzen dituzten eragozpenak saihesteko. Arramazkako kide bezala joan nintzen brigadan, taldeko hiru lagun joan ginen han kontzertuak egiteko helburuarekin.

## Nolako esperientzia izan zen?

Oso muturreko esperientzia. Kontakutak internazionalismoan lan egiten duen jendeari esker lortu genituen eta bertakoekin gertuko harremana izatea oso aberasgarria izan zen. Jende askorekin hitz egiteko aukera izan genuen eta euren ahotik haien eguneroko bizitzaren berri izatea aldi berean gogorra izan zen.

Brigadako parte izatea planteatu zigutenean, pentsatu genuen oso polita litzatekeela hango musikariekin abesti bat grabatzea. Hori izan zen nolabait gure hasierako helburue-

tako bat eta lortu genuen. Nazaret-en Rim banna abeslariarekin eta Dam taldearekin Mikel Laboaren "Gure hitzak" abestiaren bertsioa grabatu genuen.

## Zergatik liburu?

Hasieratik argi genuen Palestinatik bueltan, Euskal Herrian, zerbait egingo genuela bizitako esperientzia islatzeko eta noski sorkuntza lana behar zuen. Ez gara Palestinan adituak eta argi geneukan sortuko genuen liburuak guk sentitu eta ikusitakoa islatu behar zuela. Brigadaren helburua Euskal Herria eta Palestinaren arteko zubia eraikitzea izan da, BDS (Boikot, Desinbertsio eta Santzioa) kanpainaren jarraipena. Euskal-Herria eta Palestinaren arteko zubiaren eraikuntzan beste harri bat.

## Liburuak hiru zati ditu...

Bai hiru atal, "Palestina ikusi genuen", 60 argazki, Euskal kulturgintza eta politikagintzako zenbait lagunentzako testuekin hornituta; "Palestinatik diote" bertakoen testigantzak jasotzen dituen atala eta azken zatia, boikotaren gaia jorratzen duen "eta orain zer?".

Duela bost urte hasi zen boikota. Palestinarrek eskutatako kanpaina da, Israel marka duen orori boikota egitea. Israelek estatu normalizazio baten irudia eman nahi du eta ez dago nazioarteko erantzunik. Herrialde Palestinarran bizirauteaz ari gara eta BDS kanpaina bide eraginkorra izan daiteke honi babesa adierazteko. Gure lanarekin, bertako egoera zein den zabaldu nahi dugu. Norberak BDS kanpainaren bitartez, estatu genozidaren ekintza gaitzetsi dezake. Denen artean nazioarteko erakundeak derrigortu behar ditugu zapalketa egoera behingoz bukatzeko. Guk ere, gure txikitasunean, Palestinarengatik zerbait egin dezakegu.



Aroa Lasa "Biladi Hadi hamaika begirada Palestinari, Euskal Herriatik" liburuarekin.

## Zenbat denborako lana izan da liburuak?

Lana oso intensoa izan da. Urte bete egin dugu liburuarekin bueltak. Lehen pausua itzulera gaintzea izan zen. Horrelako bidaia osten, inpotentzia askorekin bueltatu ginen. Han bizi eta ikusitakoa gogorra izan zen eta guzti horren inguruan hotzean hausnartzeko beharra genuen. Bidaia eta liburuaren arteko denbora hori beharrezkoa izan zen, hilabete inguru hartu genuen kokatzeko.

Ondoren bai, argazkiak hautatzen hasi ginen eta kolaborazioak bilatzea erabaki genuen kanpaina indartu eta izen gehiagorekin nolabait babesteko. Alfonso Sastre, Sus-traí Colina, Amets Arzallus, Asisko Urmeneta, Miren Arte-txe, Joseba Sarrionandia, Martxelo Otamendi... lagun asko izan ditu liburuak. Egia esan, gure proposamenaren aurrean proiektuak oso harrera ona izan zuen eta emaitza oso polita izan da. Elkartasun brigada kulturalaren helburua bete dugula esan daiteke.

## Parte hartzerik nabarmenduko al zenuke?

Denak izan dira bereziak. Euskal Herriko kulturgintzako kide askok parte hartu dute. Berezi-ki hunkitzen nau Alfonso Sastre-ren testuak.

## Baina liburuak bakarrik ez, diskoak ere prestatu zenuen.

Ba bai, liburuaren barruan datorren diskoa hain zuzen. Liburuarekin buru belarri ari ginela, Palestinan grabatutako kanta eta Brigadakide izan ziren beste musikariaren ekarpenak biltzeko aukera polita iruditu zitzaigun eta disko sortzeko material nahikoa zegoenez, liburuaren osagarri izateko erabaki genuen. Pirritx, Porrotx eta Marimotots-ek esaterako, arabieraz grabatu zuten Palestinan "Maite Zaitut" kanta.

Diskoan parte hartzeko proposatu genien beste talde batzuei: Eratu taldeak kantu bat egin zigun baita Esne Beltzak ere. Besteak beste Berri Txarrak eta Fermin Muguruzak sortuta zeuzkaten kanta utzi zizkiguten. Madeleine, Skatu, Maldan Behera, Napar-K eta Jon Aranbururen kanta ere badira diskoan, Arramazka eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots-ekin batera. Euskal kulturgintzako pertsona ezaguneko proiektua babesteko, oihartzuna eman dio lanari eta hau oso garrantzitsua da hain beharrezkoa iruditzen zaigun zabalkuntzarako.

## Lan honetan zein izan da zure egina?

Nire lana beste bi kiderekin batera, liburuaren koordinazio lana izan da argazkiak hautatu,

idatziak eskatu, taldeak lotu, diskoak ekoiztu. Azken batean jende asko mugitu behar izan dugu eta hori guztia guk bideratu dugu. Prozesuan pertsona askoren laguntza ere izan dugu adibidez liburuaren diseinua Igotz Ziarretak egin digu.

## Liburuak Durangon aurkeztu zenuen Ahotsenea gunean. Nolako harrera izan zuen?

Berez lehenengo kaleratzea zen gure asmoa, baina, Durangon hiru aldiz agortu ziren liburuak, jende asko gerturatu zen aurkezpena eta oso polita izan zen. Oso harro gaude.

1.000 ale kaleratu ditugu Euskal Herrian banatzeko, ea beste edizio bat kaleratzeko aukera dugun. Proiektua autoekoiztua izan da, lanerako gogotik eta bertan bizi izandakoa adierazteko beharretik erditua. 10 eurotan saltzen da liburuak, diskoarekin batera, Amalur musika eskolan dago salgai. Euskal Herria-Palestina Sarea-ren babespean atera dugu diskoak. Honek burutzen dituen ekintzen artean bat gehiago da gure liburuak, lan jarraia. Orain esaterako jostailuen boikot kanpaina dago martxan Imaginarium, Toys "R" Us eta Afede jostailu dendatan.

Liburuarekin batera argazki erakusketa bat antolatu dugu eta dagoeneko zenbait herritan egon da, Zumaian, Altsasun, Arbizun... hitzaldiak emateko gonbiteak ere jasotzen ditugu eta horretan gaude.

## Palestinara bueltatuko al zara?

Errepikatzeko esperientzia da baina uste dut hemendik denbora batera izan beharko duela. Bizitzan lurrikara antzeko bat suposatzen du horrelako esperientzia batek eta sentitzen duzun guzti hori kanalizatzeko denbora behar da. Lagunak utzi ditut han eta haiek ikustera bueltatuko naiz. Gezurra dirudi hamar egunek guregan utzitako marka hain sakona izatea.

Agian hurrengo bidaia ez nuke brigada batean egingo. Brigada baten parte izatea oso esperientzia aberasgarria izan da niretzat eta Arramazka ere indartuta bueltatu da Palestinatik. Talde bezala oso esperientzia intimoa bizi genuen han eta horrek asko batu gaitu. Kanta askoren umetoki izan da Palestina eta orain horiek ari gara lanean. •